# EURIA

Begira nago.
Gorputz eroriak kizkurtzera aier;
Gogoak nazka ta egiñaren alke.
Gogoak arrauri...Zerbaiten zera ote?...
...-Bi begiak zabal begiratzen nago
euri mardulari. Euria bai naro!-

Amaika bulko,dena nasian
Dena batera... Bulkoak nigan.

Ortzea bultza.Motela,lantxerrez giro.
Arkaitz zugaitzak euri-jario.
Etengabeko zurrut izadik.
Ta auxe daukat nik:
Bere izkutua "ni" biurturik.
Izkutu-zunda...

Pataltasuna,erori naia,
Txoro det ames-aria;
Baño atsegin.Eten eziña.
Dena batera,
Dena batera.

Sorginpikoeta.

Arantzazu,1957,111,6